



n, Barakaldon.

landarea

‘Euphorbia milii’, gorriaren xarma

Sasoi aktiboan, loraldia barne, argi asko behar duen landarea da *Euphorbia milii* hau. Atsedendian dagoenean berriz, erdi-itzaletan eduki behar da. Loreak ematen dituean, 12 gradutik behera ez eduki. Loralditik kanpo tenperatura freskoagotan ere ongi biziko da. Lurra ongi busti. Zertxobait lehortu arte, ez berriro ureztatu. Hostoak zimetzen hasten badira ura beharko du.



ELHUYAR

Jakoba Errekondo (Elhuyar)

13:00etan, plazan.

ZORNOTZA. Xabier Amuriza, Juan Mari Areitio, Xabier Arriaga Txiplas. Gaur, Uxarte sagardotegian, gaueko 21:00etan.

dantza

BAIONA. ‘Flamenco’. Bihar, gaueko 21:00etan, Antzokian.
TOLOSA. ‘Set’. Bihar eta urtarrilaren 27an, Leidor aretoan, Nats Nus Nens Kataluniako taldearen eskutik, 17:00etan.

hitzaldiak

BERMEO. ‘Ayurveda-Indiako medikuntza’. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Itsaslore bedardenadan, Mari Osesen eskutik.
BILBO. ‘Derechos laborales del colectivo de inmigrantes’. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, CNTaren egoitzan (Santa Mari, 9.).
HONDARRIBIA. ‘Globalizazioaren aurako mugimendua’. Gaur, 19:30ean, Muara elkartearen, Hemen eta munduan-eko ordezkari baten eskutik.
ZANGOZA. ‘La historia educativa de Zangoza’ eta ‘Historia del colegio público Luis Gil’. Gaur, 20:30ean, Vallesantoro jauregian.

ikus-entzunekoak

BILBO. ‘La aventura’ (Michelangelo Antoniani, 1960). Gaur, arratsaldeko 20:00etan, eta bihar, 18:00etan, Arte Ederretako museoa.
‘El rito’ (Ingmar Bergman, 1968). Gaur, 18:00etan, eta bihar, 20:00etan, Arte Ederretako museoa.
DONOSTIA. ‘Buenas noches señor monstruo’ filmaren emanaldia. Bihar, arratsaldeko 17:00etan, Lugaritz kultu etxean.
‘La virgen de los sicarios’. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Okendo kultur etxean, EHGAme antolatuta.
ERRETERIA. ‘Turkiako espetxetako masakrea’ bideo emanaldia. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Mikelazulo aretoan.
IRUÑEA. ‘Barañaindik Melbournea bizikletan’ diaporama. Gaur, San Jorge ikastetxean, arratsaldeko 19:45ean,

erdigunean bildu eta poteoan ibiliko dira, udal bandak Elizaurreko plazan kontzertua eskaintzen duen bitartean. Rockak ere izango du bere lekua San Bizente jai hauetan. Izan ere, gaueko 22:00etan, Las Palmeras taldeak kontzertua emango du Gaztetxearen txosnan, eta ordubete geroago, Kalima taldeak musika zelta jorratuko du Laguntasunaren txosnan. Igandean berriz, bakailao eta patata tortilla txapelketan hasiko dira goizean, euskal dantzak eta artisautza azokarekin batera. Festa bukatzeko erromeria eginen dute.

musika

Oskorri. Gaur, Lasarte-Oriako kultur etxean (22:00etan).

Xabier Martin | DONOSTIA

Duela hilabete inguru estreinatu zuen Arriagan Oskorri *Vizcayatik Bizkaiara* bere azken diskoa. Orain artean soilik Bizkaian aritu da. Gaur gauean, berriz, Gipuzkoako Lasarten entzun ahal izango da Oskorriren azken lana. Natxo de Felipe pozik da eskaini dituzten kontzertuetan jasoduten erantzunarekin.

■ **Vizcayatik Bizkaiara diskoa aurkezteko kontzertua ez da ohikoa. Nola hartu dute ikus-entzuleek?**

Orain arte soilik Bizkaian eman ditugu kontzertuak, baina benetan gustura ari gara ikusleen erantzuna ikusita. Izan ere, kontuak oso animosoak dira, eta jendeak parte hartzeko aukera handia dauka. Kantuen bizitasunari esker, kontzertua ikuskizun bilakatzeko parada izaten dugu. Hala, ikuskari horretan, jendeak bere rol txikia ere badu.

■ **Noiz arte izanen zarete ikuskizun hori taularatzen?**

Uda partera arte behintzat, *Vizcayatik Bizkaiara* diskoaren kontzertuekin ariko gara.

■ **Xabier Amurizak botatako**

NATXO DE FELIPE OSKORRI TALDEKO ABESLARIA

«Ez gara inoiz ere modan egon, artisautzan aritzen baikara»



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

erronka batek suertatu du zuen azken lana. Gustura geratu al zarete emaitzarekin?

Bai, hala da. Izan ere, kantu xe-heak dira, barrokismorik gabekoak, baina aldi berean ez zaie zorroztasunik falta.

■ **Orain ere erraz betetzen ari zarete antzokiak. Modatik aparteko taldea al da Oskorri?**

Gu ez gara sekulan ere modan egon. Hasieratik artisautza musikan aritu gara, eta hala jarraitzen dugula iruditzen zait. Nolanahi ere beti lortu dugu jendearen zati baten oniritzia.

■ **Zein da zuen ezkutuko formula disko berrien etengabe-ko merkaturatzearen eritmoari eusteko?**

Ez dago ezkutuko formularik. Sekretu bakarra, lana eta grina da, besterik ez dago. Gustura egiten den lana eginez gero, erraza da hori ulertzea. Nolanahi ere, ogibide honetan egunean ordu asko lanean egiten dituzula egia da. Oskorriren nortasuna ezaguna da, formula aski zabala erabiltzen dugu. Hainbat estiloren nahasketak ematen digu piperra.

Luis Diego Diezen eskutik, Sanduzelaiko Mendi Astearen barruan.

OIARTZUN. ‘Everest 2001’ bideo emanaldia. Gaur, Udaletxeako Pleno aretoan, 20:00etan, Edurne Pasabanen eskutik.

bestelakoak

DONOSTIA. ‘Arte flamencoaren II. lehiaketa amateurra’. Bihar, arratsaldeko 16:00etan eta 19:00etan, Antzoki Zaharrean.
GASTEIZ. Ipuin kontaketa haurrentzat ingelesez. Bihar, Montehermoso kulturguneko kafetegian, 18:30ean.
Txorizo jana. Gaur, gaztetxean, 20:00etan.
ZARAUZ. ‘Aingurak erreketan’

errezitaldia. Gaur, Olerti etxean, 19:30ean, Jon Benitoren eskutik.
‘Kontu kontari, hori bai bizitzea’. Urtarrilaren 27an, Jose Mari Carrereren eskutik, arratsaldeko 19:30ean, Gazte Lekuan.

erakusketak

AZPEITIA. ‘Baserriko argia’. Urtarrilaren 28a arte, Betharrametako elizan. Emakume Baserritarren Elkarteak antolatu du erakusketa, eta Juan Gorritiren lanak daude ikusgai.
BAIONA. ‘FMI, Nazioarte Diru Funtza’. Urtarrilaren 31 bitartean, Baionako Atalante zineman, SNCFk antolatutako erakusketa ikusgai.
BEASAIN. Tere Arruabarrenaren lanak. Urtarrilaren 18tik aurrera ikusgai,

Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.
BILBO. ‘Gaur, hemen, orain’. Apirilaren 7a arte, Bilboko Arte Ederretako Museoa.
BURLATA. Fermin Biurrarena margolaria. Urtarrilaren 23tik, otsailaren 3a arte, Kultur Aretoan.
DONOSTIA. ‘Kantuketan erakusketa soinuduna’. Urtarrilaren 24an, martxoaren 2a arte, Koldo Mitxelenako Ganbara aretoan.
GASTEIZ. ‘La cooperación en imágenes’. Otsailaren 4a arte, Hegoalden.
GETXO. ‘Bosteko 2001: Xabier Agirre, Baroja Collet, Adrian Ferreño, Isabel Garai eta Ricardo Toja’. Hilaren 30a artean, Erakustaretoan. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-21:00 astegunetan, eta 11:00-13:00 jai egunetan.

TOLOSA. ‘Gure kaiola, 75 urte, Tolosa’. Otsailaren 16a arte, Aranburu jauregian.
ZARAUZ. Jaione Bersategiren olioak. Gaur, Otsailaren 17a arte, Torre Luzean. Goizeko 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 18:00etatik 20:00etan aste barruan. Jai egunetan, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara.

ikastaroak

BILBO. Tango ikastaroak. Tangoaren oinarriko pausak ikasteko, Garua elkartearen eskutik. Uda garaian, Café Boulevard-eko lehenengo solairuan, ostiralero eta hileroko lehen larunbatetan, 23:00etatik aurrera.
‘Historias inmortales, fuentes y

relatos de los cuadros de historia’. Bilboko Arte Ederren museoan, martxoaren 13ra arte. Hainbat adituk pinturaren historia aztertuko dute. Izena emateko, 94-4396060 zenbakira hots egin.
ZARAUZ. Argazkigintza ikastaroa. Otsailaren 18tik martxoaren 25 arte iraungo du. Astelehen eta asteazkenetan izango dira eskolak Argazkizale Elkartearen eskutik. Ikastaroaren kostua 75,13 eurokoa izango da. Parte hartzaile guztiei Curso de Fotografía liburua banatuko zaie.
Gozogintza ikastaroa. Urtarrilaren 23tik martxoaren 20 arte izango da ikastaroa. Asteazkenean izango dira eskolak, Aiala Sukaldaritza Eskolan. Ikastaroaren kostua 121,7 eurokoa izango da.